

Familia agurgarria:

Idazki honen bidez **HEDATZE** proiektuan **lehenengo hiruhilekoan** ikasleei eskainiko dizkiegun tailerren inguruan informatu nahi dizuegu. Tailerrak **15:30etik 17:30era** burutuko dira.

Tailerren ezaugarriak askotarikoak direnez, ondoren zehaztuko dira tailer bakoitzaren datak, informazioa eta bestelako xehetasunak:

Tailerra	Iraupena
<b>Musika Taldea</b>	Urriak 13, urriak 27, azaroak 10, azaroak 24, urtarrilak 12, otsailak 9, otsailak 23, martxoak 9, martxoak 30, maiatzak 18 eta ekainak 1. (11 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Musika tresnaren bat jotzen dakien edo ikasten ari den ikasle zein irakasleei.
<b>Zer egingo dugu?</b>	Irakasleak ikasleekin batera musika taldea sortuko da, eskoletako ospakizunetan zuzenekoak egiteko.

Tailerra	Iraupena
<b>Konpetentzia digitala</b>	Urriak 20 eta Urriak 27 (2 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasleen familiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Tailer honetan familiek oinarrizko konpetentzia digitalean trebatzeko tresnak ikasi ahal izango dituzte (Gmail, internet,...)

Tailerra	Iraupena
<b>Jai Batzordea</b>	Urriak 13 – Ekainak 1 (15 saio )
<b>Nori zuzenduta</b>	Irakasle eta ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Ikastetxean urtean zehar antolatzen diren jai, festa eta ekitaldi berezien antolakuntza egingo dugu.

Tailerra	Iraupena
<b>Zientzia kulturala</b>	Azaroak 17 – Otsaila 2 (5 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	DBH 3 eta 4. mailako ikasleei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Tailer honetan, komiki, irudi, liburu, telesail edo filma desberdinak ikertuko dira zientziaren ikuspuntutik. Bertan dauden, teoria edo asmakizun zientifikoak klasean ikasten diren kontzeptuekin erlazioa bilatuko da.

Tailerra	Iraupena
<b>Solarigrafia</b>	Azaroak 10, abenduak 15 eta ekainak 1 (3 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	DBHko ikasleei
<b>Zer egingo dugu?</b>	<p>Solarigrafia esposizio luzeko argazkilaritza teknika da. Urtean zehar eguzkiak zeruan zehar dituen ibilbide desberdinak argazki paperean inprimatzen dira.</p> <p>Tailer honetan argazki kamera (kamera iluna) egin nahi dugu eta abenduan patioko puntu altu batean jarri, gero ekainean kenduko da.</p> <p>Kendu ostean argazkiak errebelatzeko saio bat izango dugu. Horrela errebelazio teknikak ikasiko ditugu.</p>

Tailerra	Iraupena
<b>Zinema eta krisialdi eko-soziala</b>	Urriak 13 – Azaroak 17 (6 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasleei eta irakasleei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Gure garaiko erronka klimatiko, energetiko, sozial eta politikoak eztabaidatuko dira, etikoki eta zientifikoki aztertuz.

Tailerra	Iraupena
<b>Badmintona</b>	Urriak 20 – Abenduak 15 (7 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Badmintonean jolasten ikasi eta aldi berean ondo pasatuko dugu.

Tailerra	Iraupena
<b>Abesbatza</b>	Urriak 13, urriak 20, azaroak 3, azaroak 17, abenduak 15, urtarrilak 12, otsailak 9, otsailak 23, martxoak 9, martxoak 23 eta apirilak 20. (11 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	<p>Ahotsaren bitartez, ikasleok hezkuntza musikala garatuko dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Praktiken bidez entzumen, teoria eta musika praktikak hobetu, memoria, arreta eta talde lana garatuko da.</li> <li>• Ahotsaren teknikaren eta arnasketaren oinarriko ezagutzak eskuratuko da praktiken bidez.</li> <li>• Abestien errepertorio askotarikoa ikasiko da: hizkuntza desberdinetan, herrikoiak, egileak...</li> <li>• Gozatu entsegu eta emanaldiekin, errespetua, lankidetzeta eta diskriminaziorik ez duten balioak ikasiz.</li> </ul>

Tailerra	Iraupena
<b>Xake taldea</b>	Urriak 27 – Otsailak 23 (11 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Xakean jolasten ikasiko dute eta, dakitenek, hobetzeko aukera izango dute.

Tailerra	Iraupena
<b>Zuk zeuk egin</b>	Azaroak 10- Azaroak 17 (2 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Alde batetik, Otzaragintza tailerra egingo dugu; hau da, ikasle bakoitzak ihi-muinez otzara bat egingo du. Bestetik, kosmetiko naturalak ekoiztuko ditugu, zehatz mehatz, xaboa eta ukendua.

Tailerra	Iraupena
<b>Berdintasun tailerra</b>	Azaroak 24 – Martxoak 2 (8 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Berdintasuna sustatzeko ekintza ezberdinak garatuko dira

Tailerra	Iraupena
<b>Irrati tailerra</b>	Urriak 20, Azaroak 17, abenduak 12, otsailak 23 eta martxoak 30 (5 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irrati-teknika batzuk ezagutu eta kudeatuko ditugu</li> <li>• Ikastetxeko megafonia patioko abestiak kudeatuko dugu.</li> <li>• Elkarrizketak prestatu eta grabatu irratan.</li> <li>• Ostiralero megafoniatik igorriko den astekaria diseinatu.</li> </ul>

Tailerra	Iraupena
<b>Historia, Zinema eta mahai-jokoen bidez</b>	Urriak 13 – Otsailak 9 (11 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Historia, zinema eta mahai jokoen bidez ezagutuko da.

Tailerra	Iraupena
<b>Haria eta Artilea</b>	Urriak 13 – Azaroak 10 (5 saio)
<b>Nori zuzenduta</b>	Ikasle guztiei
<b>Zer egingo dugu?</b>	Jostea eta gantxiloaren teknika hasieratik ikasiko ditugu

Zuen seme/alaba edozein tailerretan interesatuta badago, etxera eramango duen matrikula-orria osatu eta sinatu. Ondoren, ikasleak **tutoreari** entregatu beharko dio **urriaren 5a baino lehen (asteazkena)**.

Adeitasunez,

Zabalgana BHI